

Irakurleak osatzeko puzzlea


Andoni Agirrezabalak bere lehen eleberria idatzi du: 'Etxe Berdea' • Gertakizun tragiko bat da istorioaren ardatza, eta herriko aguazilaren ikerketa lana liburuaren oinarria

Jone Bastida Alzuru Donostia

Ezbehar batean oinarritutako ikerketa lan baten emaitza. Hori da Andoni Agirrezabalak (Alegia, Gipuzkoa, 1998) *Etxe Berdea* bere estreinako eleberrian egin eta jaso duena; Ereinek argitaratu du liburua. Nobela beltza da, eta gertakizun tragiko bat dago oinarrian: aguazilak bere kabuz ekingo dio 2005eko urriaren 29an herrian jazotakoa ikertzeari, Poliziaren bertsio ofizialak ez duela guztiz konbentzitu. Bidean, hainbat lekukoren testigantzak bilduko ditu, eta txostena osatuz joango da. Hain zuzen, dokumentuz betetako karpeta horixe aurkituko du irakurleak, eta gertatutakoa deskubritzea eta kasua argitzea orriotan egin beharreko ariketa. Irakurleari jarrera aktiboa izateko proposamena egiten dio idazleak. Zer gertatu zen herriko Etxe Berdean? Horra galdera.

Liburu «ezberdina eta originala» dela azaldu du Uxue Razkin Ereineko editoreak. «Aurkitutako metrajea da Andonik erabili duen teknika. Irakurleak karpeta bat topatuko du, dokumentuz beteta, eta aguazilak jaso dituen bizilagunen testigantzak dira horiek. Irakurlearentzat puzzle bat izango da». Narrazioan protagonista bakoitzak esandakoa jasotzen da, eta irakurleak pixkanaka joan beharko du pieza horiek ahokatzuz, idazlearen «esku sartzerik» gabe. «Hori nabarmendu nahiko nuke, ze oso originala eta interesgarria da, baina zailtasunak ere baditu; horietako bat, agertzen diren pertsonaia horiek guztiak desberdintzea». Hots, pertsonaien ahotsak, izaera... identifikatzea eta bereiztea. «Aguazilak editore zuzenduko ditu, baina irakurleak jasoko duena lekukoek esandakoa da».

Hori izan da, hain zuzen, Agirrezabalaren erronka nagusia ere. «Azken batean, irakurleak jakin behar duelako ze pertsonaia ari den idazten edo hitz egiten. Batzuk naturalago atera zaizkit, beste batzuetan lan gehiago egon da atzean». Askotariko pertsonaia daudela azaldu du, profil ezberdinetakoak: iraganeko



Andoni Agirrezabala idazlea, Donostian, *Etxe Berdea* liburuaren aurkezpenean. GORKA RUBIO / FOKUÇ.

mamuez beldur den emakume bat, herriko hilerrian lan egiten duen gizon bakarti bat, umeak, kuadrillan arazo batzuk dituzten gazte nerabe batzuk... Zazpi lekukoren ahotsetatik kontatuko da jazoera, aguazilarena barne.

Hala, istorioak zentzua izango du, baina irakurleak ebartziko du. Beharrezkoa zen, horretarako, pieza guztiak ondo ahokatzera. Razkin: «Bakoitzak berea kontatuko du. 2005. urtean gertatutakoa gogoratuko du, gaizki, ongi, gezurrak esango ditu... hori ja irakurlearen esku dago; sinistea edo ez, bataren edo bestearen ildoari jarraitzea».

Agirrezabalak azaldu du bere haurtzaroko zenbait paisaiatan oinarrituta eraiki zuela istorioaren agertokia, fikzioa lagun: «Haurtzaroko paisaia batzuk eta horiek nigan sortzen dituzten giroak edo atmosferak gordetzen dira». Behin agertokia eraikitakoan sortu zuen istorioa, eta argi izan zuen nondik jo: misteriotik. Betidanik erakarri duen generoa dela aitortu du, eta hortik egin du tira. «Gertakizun tragiko horrek atzean gordetzen duen misterioaz gain, egunerokotasunean aurki ditzakegun misterio txikiagoak ere ageri dira». Izan daitezke atzean «zerbait gordetzen

duten» elkarrizketak edota pertsonaien izaera bitxiak. «Interesgarria iruditzen zitzaidan ezaugarri horiek zituen istorio bat idaztea».

Naturaz gaindiko elementuak ere txertatu ditu idazleak, misterioa «puzten» dutenak. Arrazoa azaldu du: «Herrian badago halako istorio edo mito antzeko bat, eta, azalean ikusten denez, hor sartzen da naturaz gaindiko puntu hori. Badu bere garrantzia eta presentzia».

Irakurleari aktiboki parte hartzeko proposamena egiten dio Agirrezabalak, eta, beraz, zabalik utzi ditu istorioaren eta tramaren bidea segitzeko aukerak. Interpretatu, hausnartu, erabaki eta jolastu egin beharko du irakurleak ere; ikerketa lanaren parte izango da.

Nola heldu argitaratzera

Agirrezabalaren estreinako liburua da *Etxe Berdea*. Biologia ikasketak egin zituen EHU Euskal Herriko Unibertsitatean, eta, egun, irakasle izateko prestatzen ari da. Hain zuzen, unibertsitate garaian bildu zen literatur mundura. «Bilbon ikasi nuen, eta orduan apartatu nintzen nire herri ingurutik, haurtzaroko gordetzen diren paisaia horietatik. Pandemia garaian herrira itzuli

nintzenez, indartu egin ziren oraindik irauten duten loturak. Hor hasi nintzen idazten, pixkanaka», azaldu du. Ez zion asmo jakin batekin ekin idazte eta sortze prozesuari, eta nora iritsiko zen «oso ondo jakin gabe» abiatu zen. Baina bilatu zuen bidea, «baita bukaera bat ere».



Gertakizun tragikoak atzean gordetzen duen misterioaz gain, txikiagoak ere ageri dira»

Andoni Agirrezabala idazlea

Bitxia izan zen, halaber, testua liburu nola bihurtu zen. Agirrezabalak esplikatu du Razkinen txio bat ikusi zuela, non adierazten zuen euskal nobela beltza nahi zuela. Lagun batek bultzatuta, harekin harremanetan jarri zen idazlea, eta Twitterrek egin zuen bere magia: «Aste gutxitara erantzun zidan gustatu zitzaiola, eta lanean hasteko prest banengoen aterako zela zerbait txukuna». Prest eta gogoz hartu zuen erronka Agirrezabalak, eta kalean da emaitza. Egindakoarekin «gustura» daude biak.

Juanjo Egizabal 'Ibiltaria'-ren egilea zendu da

ARTEA • Juanjo Egizabal Gasteizko *Ibiltaria* eskultura ezagunaren egilea hil da, 61 urterekin. Jaiotzez Logroñokoa (Espainia) zen, baina gazte zela iritsi zen Gasteizera, eta, hain zuzen ere, haren lanak Arabako hainbat parketan ikus daitezke. 1985ean jarri zuten Arka plazan *Ibiltaria*, 3,5 metro luze den eskultura. Besteak beste, Cicatriz taldearen *Inadaptados* diskoaren azala ere egin zuen.

Gipuzkoako domina jasoko du Elkar taldeak

EDIZIOA • Mende erdia ospatzen ari da aurten Elkar, eta urtemugarekin bat heldu da berria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 2022ko Urrezko Domina haiei banatzea erabaki du, sorreratik «euskararen eta euskal kulturaren sustapenean eta garapenean» egin duen lanaren aitorten gisa. Eider Mendoza aldundiko bozeramaileak zehaztu duenez, abenduan egingo dute saria emateko ekitaldia, erakundearen Donostiako egoitza nagusian.

Sortzaile taldeko lau kidek berriki BERRIARI kontatu zioten nola izan ziren Elkarren hastapenak. 1972an hogeitaz gazte elkartu ziren aurrena Baionan, bi urtera Hegoaldeko beste hogeitaz batu ziren proiektura, eta hala hasi zen, apurka, euskal kultur ekosisteman eragile determinantea bihurtu den enpresa gorputza hartzen. Hastapen horiek oroitu ditu, hain justu, Mendozak, eta sorreratik «askotariko ideologia politikoefako kideak» bildu izana txalotu du. Nabarmendu du, halaber, hasieratik liburuaren kate osoaz arduratu izan dela Elkar —argitaletxea, salmenta eta banaketa uztartuz—, eta, gaur egun, liburu eta diskoen ekoizpenetik harago, bestelako proiektuak ere sustatzen diharduela. Ekin-tza horiek guztiak fundazioaren aterkipean egiten direla eta, beraz, irabaziak berriro euskal kulturaren inbertitzen direla ere azpimarratu du bozeramaileak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1982. urteaz geroztik banatzen duen saria da Urrezko Domina, eta askotariko taldeak zein norbanakoak saritu dituzte ordutik hona.